

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko azaroaren 24a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Iruñea • Txantrean euskal astea egiten ari dira, eta Arrotxapean bihar euskararen eguna izanen dute
Ana Garcia Matias • Afrika Etxeko lehendakariak etorkinei ostatu eta heziketa emateko etxeaz hitz egin du

Hamarkada bat Bortzirietan bertsoak ekoizten



• KARMELE TOLOSA



• KARMELE TOLOSA

Hamar urte bete ditu Bortzirietako Bertso Eskolak, Nafarroan lehenak. Nafarroako Bertsolarien Lagunak Elkarteak bultzatuta, Bittor Elizagoienek eta Manolo Arozenak abian paratu zuten Nafarroan bertsolari eta bertsozale gehien eman duen Bertso Eskola. Ibilaldia egin dugu hamarkada honek eman duen historian barrena.



Astiz

Denetara 170 milioi pezeta gastatuko dute Metrokilloko kobazuloa egokitzeko

Astizko Metrokilloko kobazuloa lehengoratzeko proiektua aurkeztu berri dute. Kobazuloa 50eko urteetan askok bisitatu zuten, baina hainbat arrazoirengatik itxi behar izan zuten behin eta berriro.

ORAIN, ASTIZKO HERRIAK inbertsio handia egin du kobazuloan, Larraun eta inguruetara hurbiltzen diren bisitariak herriraino erakartzeko. Larraungo Astizko herriak orain arte itxita izan duen kobazuloa lehengoratzeko asmoa du, joan den astean Lekunberriko Mitxausenea kultur etxean azaldu zuten bezala. Badirudi Metrokilloko kobazuloa irekitzeko lan dexente egin beharko dutela, eta, horregatik, hurrengo bi urteak beharko dituzte jendeari erakutsi baino lehen.

Oihanabal mendiaren ipar magalean kokatuta dagoen kobazulo honetara iristeko Astizko hariztian barna abiatu beharko da paseotxo bat emanez eta, ingurunekeo paraje ederrekin gozatu ondoren, aspalditik ezagutzen diren zuloak ikusi. Kobazuloak aitzakia polita eskainiko du Larraunera etortzeko. Gainera, kontuan hartu behar da Aralarako santutegia eta Plazaola Partzuergo Turistikoak txu-

kundu duen bide berdea oso gertu ditugula. Astizko herriak probestu nahi izan du hori guziaz, eta bere eremuan duen altxorra bisitariari eskaini.


Kobazuloa egokitzeko lanak laster hasiko dituzte. Denetara, proiektu honetan, ekainean egindako aurrekontu batean azaldu dutenez, 169.343.358 pezeta gastatu behar dituzte Larraungo eta Lekunberriko Udalak, Astizko Kontzejuak eta Plazaola Partzuergo Turistikoak. Nafarroako Gobernuak aurrekontuaren %53 ordainduko du, hau da, 90 milioiko diru laguntza emanen du. Duela astebate proiektuaren arduradunek emandako prentsaurrekoan azaldu zuten bezala, 2001eko abenduaren 31rako bukatu behar dituzte egin beharreko lan guztiak,

eta aurreikusita dago 2002ko maiatzerako kobazuloa zabalik egotea bisitariarentzat.

Astizko herritik kilometro eta erdi batera dago Metrokilloko kobazuloa. Jende askok bisitatu zuen 50eko urteen hasieran, baina arrazoi askorengatik itxi behar izan zuten behin eta berriro. Guretzat momentuz bisitatzeko au-

keru urruti egon arren, egin beharreko lana handia delako, lanaren arduradunek ziurtatu dute merezi duela horrelako inbertsioa egitea, kobazuloa ederra baita. Kobazuloak zenbait gela ditu, eta, esan dutenez, denak ezinen dira bisitatu.

→ Eli Belauntzarán



2002ko maiatzerako Metrokilloko kobazuloak zabalik egon behar dute bisitariarentzat. ● OSKAR MONTERO

Leitza

Leitza aldetik Sahararaino

ABENDUAREN 4TIK 9A BITARTE Leitza 21 lagunek eta Aresoko beste bostek Sahararako kanpamentuak ezagutzeko aukera paregabea izanen dute. Bertan emanen dituzten bost egunetan udan beraien familietan bi hilabetez izan dituzten umeak berriro ikusi eta haien guraso eta anai-arrebak ezagutzeko aukera izanen dute. Junkal Otxotorena Sahararako umeak Leitza aldera ekartzeko batzordeko kideak azaldu duenez, bidaia hau apirilean egitekoa zen, baina Nafarroa osotik hegazkin bat osatu da eta egun berezi hauetan joanen dira Sahararako herritarrek paraitzen duten egoera zuzenean ezagutzeko.

Dena den, badira batzuk Sahararako hurrekin harreman zuzena izan ez dutenak baina animatu direnak bidaia hau egitea, horien artean Karrape irratiari esatari lanetan aritzen den Unai Zabaleta. Zabaletak lanean jarraituko du kanpamentuetan. Zabaleta sahararren hizkuntza, kantak eta bestelakoak grabatzeko asmoarekin joanen da, ondoren Leitza irratitik eskaintzeko. Argazkiak ere egingen dituzte gerora erakustaldi bat antolatzeko.

Junkal Otxotorenak azaldu duenez, basamortuan bizi den herri honen kanpamentuak ezagutzeaz gain, familiakoekin egoteko aukera izanen dute, baita haien ohiturak ikasi ere. Eta seguraski bertakoek festaren bat ere antolatuko diete bertan pasatuko dituzten bost egunetan.

→ Eli Belauntzarán

irulegitik

JOJO BIDART



Iparraldeko lurraldetasuna galtzen ari gara

Sekulan erdietsi ez dugun Iparraldeko lurraldetasunaren ezagutza ofiziala eta erreala urruntzen ari zaigu!

Euskal departamenduaren aldeko nahikaria ez da sekulan orain bezain azkar agertu hemengo jendeeen artean: herriko auzapez eta kontseilari, ondotik Garapen Kontseiluko kide sozio-ekonomiko, eta azkenik Iparraldeko bizizaleen bi herenek egitura berriaren aldeko ikusmoldea beretzen dute gero eta fermukiago. Denbora berean, agintari politikoen inobilismoa eta debekua sekulan bezain azkar eta astuna agertzen da. Hor ditugu lekuko Miarritzerat etorri den dezentralizazioari buruzko proiektua ikertzeko Frantziako Gobernuak izendatu duen lan taldearen buru Pierre Mauroyren azken deklarazioak, duela 19 urte Faston Deferrek agertu zuen ukapen berbera argumentazio berdinekin.

Beste lurraldeetan abiatu den erreforma administratiboa, eta behar bada konstituzionala, ez da guretzat egina. Guretzat ez da deus mugitu behar, lanjerra handiegia omen da! Badakigu, hala ere, politika gizon horien diskurtsoa aldatzen ahal dela, zalutasun handiengan gainera, zenbait aldiz. Baina ez dugu aldaketa horren gakoa eskuetan, iduriz! Ezin higituzko aitzin-irudi horren gibelean gertatzen ari dena da kezagarriena.

Zazpi urte luzez lanean ari izan den Garapen Kontseiluak lortu duen Iparraldeko lurraldetasun ezagutza ofizial bakarra Pays edo Herri egitura izan da, Voynet legeak eman duen tokiko egitura administratibo berria. Baina instituzio berriaren eskumenak definituak izan gabe, han eta hemen entzuten dugu Herri egitura bezalakoak munta daitezkeela Zuberoan, Amikuzen edo beste zenbait herri elkargotan, Iparraldeari kohesio ad-

ministratibo gutien bat ematen ahal zion egiturari bere balio tipi bakarra kenduz.

Denbora berean, oharitzen gara egiazko boterea duen Iparraldeko egitura dela Baiona-Angelu-Miarritze hiri elkargoa, elkargo horren xede jakina delarik garapen proiektu eta akordioak egitea inguruko herri elkargoekin. Eraikitzen ari den sareak hunkitzen ditu inguruko 30 bat herri Lapurdi barnealde hurbilean eta Lande-setako hegoaldean, azken eremu horretan ekonomia garapenerako industriagune berriak prestatzen ari direlarik. Azkartzen ari diren joera nagusi horien ondoan zer pisu geldituko zaio indar-husten ari den Baxenabarri eta, orokorki, zer kohesio ukanen du Iparraldeko lurraldeak?

Iparraldeko lurraldetasunaren definitzeko eta akuilatzeke tenorea dugu.

Iruñea ●

Euskara auzoetan



Arrotxapeako Euskararen Eguneko ekitaldi gehienak Gages parkean izanen dira. ● MIKEL SAIZ

Aste barruan hainbat ekitaldi egin dituzte Txantrean, eta bihar, Arrotxapean, Euskararen Eguna izanen da

Iruñeko iparreko auzoetan, Txantrean eta Arrotxapean, euskara azkartzeko ekimenak abiatu dituzte. Txantrean Euskal Astea egiten ari dira, eta Arrotxapean Euskararen I. Eguna eginen dute bihar.

TXANTREAKO EUSKAL Astea bihar bukatuko da. Gaur, ostiralarekin, mahai-ingurua eginen dute 19:30ean, Kaskallueta elkartean, kirolak gure bizitzan duen garrantziaz hitz egiteko. Gauean, elkartean bertan, txiste-afaria izanen da, Giller-mo Seguroolarekin.

Bihar hiru hitzordu izanen ditu Txantreako Euskal Asteak: 12:00etan Eunateko herri kiroltako taldea Txantreko koadrillen aurka ariko da herri kiroltako, Ezkaba plazan; 16:30ean, Auzotegin,

Iñaki Lasak euskara Nafarroan zertan den azalduko du; eta 19:00etan, Zurgai herriko tabernan, Baltziskueta gazteei zuzenduriko ipuinak kontatuko ditu.

Arrotxapean, Euskararen Eguna

Euskal asterik ez dute antolatuta Arrotxapean, baina bai Euskararen I. Eguna. Bihar izanen da, eta, horretarako, egitarau zabala antolatu du Arrotxapeko Jai Batzordeak. Batzordeko kide Luismi Uhartek azaldu duenez, aspaldi

zuten horrelako zerbait antolatzeke asmoa. «Besta hau urtearen bukaeran paratu dugu, eta gure asmoa da Olenzero, Inauteria, bestak eta Arrotxapearen Egunarekin batera finkatzea Euskararen Egun hau».

Jai Batzordeak egin azterketaren arabera, «euskara ez da nagusi Arrotxapean, inolaz ere ez». «Baina horrek ez du esan nahi galdu dugunik», dio Batzordearen komunikatuak. Euren aburuz, auzokide anonimo askori esker eta herri mugimenduari esker (AEK, D

eredua, Euskal Txokoa...) «suspertu da Arrotxapekoon hizkuntza zaharra». «Batzordeak, jakina, bere ahaleginak egin ditu gure hizkuntzaren alde, eta berriro bide horri ekin nahi dio Euskararen I. Eguna antolatuz, aldarrikapena, elkar ezagutza eta jaia uztarturik». Egun hori bihar da, Arrotxapean.

→ Asier Azpilikueta

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Biriatu, handitzen ari den herria

Biriatu herriaren inguruan mintzo da *Herria* astekaria bere azken zenbakian: «Biriatu dugu kostaldeko herri ttipiena. Ez eremuz, baina jendetza-ren aldetik. Nahiz jendetze hori araberan herri frangorena baino gehiago emendatu den azken denbora honetan. Xifreak hor dira funtsean lekuko: 850 bizilagun jazko jende konda-tzean, 694 duela hamar urte egin zen hartan eta 530 duela 25 urte... Heldu baita mende laurden baten epean jendetzea goititu dela % 62!». «Biriaturako plaza, mendixka baten

mazelari lotua bezala, kaxko batean da eta xoko batean, Lehen erraiten zen jende pasaiarik gabeko herria zela Biriatu. Bazterbideño bat hartu behar alabainan Biriaturat heltzeko eta gero bide beretik jautsi behar, nehorat ez beste ateratzerik... Orain, ez da haatik aise erraiten ahal pasaiarik gabeko herria girela Biriatur. Plazari behatzen bazaio ba bixtan da, baina ez haatik ikusiz gero Biriaturko lurretatik dela autobidea mugarat heltzen, Biriaturko zubia deitzen den hortarat preseski. Eta

hor bada alimaleko pasaiak! Egun giziz hamar mila auto eta kamiun, batzuetan gehiago ere!».

«Hain xuxen, zubi horrek gaitzeko fama emana dio Biriaturi. Frantzia guzian gutien ustean aipatua baita Biriatu, edo galkadurak badirelaketoz zubi hortan, edo kamiunzainen greba dela edo berdin drogaki tornu handi zenbait hor nunbait sesitua izanik. Biriatur behin izana den nor-nahik erraiten ahal du fama onik baizik ez duela merexi holako leku pollitak».

Euskararen I. Eguna Arrotxapean

Azaroak 25, larunbata

- ▶ **11:00** - Musikaz lagundutako bizikleta martxa auzoko karriketaren zehar, Carbonillako patiotik, Gages kondearen parkeraino.
- ▶ **12:00** - Euskararen aldeko herri murala, Gages parkean.
- ▶ **12:30** - Dantzak Euskal Txokoaan umeen aldetik, Gages parkean.
- ▶ **13:00** - Herri kirolak, auzoko elkarte eta taldeen arteko lehia, Gages parkean.
- ▶ **14:30** - Bertso-bazkaria Arrotxapea peñan, Xabier Silveira eta Jokin Soroza-bal bertsolariekin. Txartelak betiko lekuetan hartu behar dira. 1.800 pezeta.
- ▶ **17:30** - Umeentzako ikuskizuna Heritz magoarekin, Carbonillako lokaletan.
- ▶ **17:30** - Euskal musikako bideoak, Errota-Berri elkartearen.
- ▶ **20:00** - Euskararen aldeko kalejira, El Salvador plazatik, tabernaz taberna trikitixaren laguntzarekin.



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Lola Eguren (sic)

Lola Eguren (sic) idazten dut goizeko ordu sakon hauetan. Eta gainera datorkit munduko historiari eman dituen gizon eta emakume handien zerrenda: Mandela, Lincoln, Luxemburg... musika jakin baten notak izango balira bezala: Lola Eguren, Mandela, Lincoln, Luxemburg... ez al duzue sentitzen erritmo berean?, la-la-la-la... Eta musikak urrutira eramaten nau: Normandiako Egunera narama (eta hemen baserri frantses bat ikusten dut, eta bertan erresistentziako neska bat, aldaketa handi baten itxaropenez), Berlingo espartakistengana narama (bi gazte Brandenburgeko atearen gainean. Bronzetzko zaldien hanken artean metrailadora prestatua, beraiek akabatuko dituzten morroien esperoan), Parisera narama (eta Parisen Herritarrek Eskubideen jabe izan beharko zutela otu zitzaion tipo bat ikusten dut.

Gerora Bastillan moztuko diote lepoa). Pamplonara narama (eta hemen Lola Eguren (sic) ikusten dut Parlamentuburuan... zer edo zertan). Normandia, Berlin, Paris, Pamplona... Musika bera osatzen duten akorde diferenteak. Lola Eguren (sic) idazten dut eguerdiko euria entzunda. Eta goizean idatzitakoa berrirakurri ondoren motz gelditu naizela oharitzen naiz. Jakin nahi nuke, bai. Jakin eta idatzi. Washintongen dagoen Kapitolioa Erromako Kapitolioaren omenez izendatu zuten hala, ez al zen posible izango, asko kostatzen al da? (sinadurak biltzen hasi beharko dugu edo?) NBERen egoitzari Lola Eguren (sic) jartzeko? Ez al da ba begibistakoa? Ez al du inork nik entzuten dudana musika bera entzuten? Ez al da inor oharitzen akorde baten faltan osatzeke dagoela hau guztia? Ez al du inork Tazito irakurri (redios!)? Mandelaz ahaztu egin al gara? Ez al da jada Historia irakasten unibertsitatean (edo karpan)?

Lola Eguren (sic) idazten dut arratsaldeko araba-zozoak lotara doazela. Egun guztia eman dut lerro hauek idazteko eta oraindik ere zer edo zer gehitu behar dela bururatzen zait. Zer edo zer eskapoan dabilela. Ezin harrapatuz. Zer izan litekeen zentzurik aurkitu gabe lotara noa, Historia, Politika, Lola Eguren (sic), ez adiorik ●

Hamar bertso urte Bortzirietan

1990etik, sortu zenetik, makina bat lagun pasatu da Bortzirietako Bertso Eskolatik

Bortzirietako Bertso Eskolak 10. urteurrena du. Arantzan paratu zen abian, 1990eko udazkenean, eta, harrezkero, makina bat gazte trebatu du bertsoetara, eta Nafarroako bertsolaritzaren ispilurik adierazkorrena bihurtu da. Nafarroako lehenbiziko bertso eskola izan zen, eta hamar urte hauetan etenik gabe jarraitu duen bakarra.

LAUROGEIKO HAMARKADAKO BIGARREN zatian, Nafarroako Bertsozale Elkar-
tea—artearen Bertsolarien Lagunak Elkar-
tea—Nafarroako hainbat ikastolatan ber-
tsolaritza lantzen aritu zen. Lontxo Aburu-
za ibili zen ikastolaz ikastola gaztetxoek
bertsolaritza irakasten. Ikasle haien guz-
tien artean bazegoen talde bat gainerako
guztien artean nabarmendu zena: Lesaka-
koa. Talde hartako ikasleek ikastola utzi
behar zutelako eta, institutura joatearekin
bertsolaritzarekin zuten harremana mozte-
ko arriskua zegoen. 1990. urtean bertso-
laritza ez zegoen egoera oinarri Nafarroan;
azken hamar urteetan apenas zen bertso-
lari berririk plazaratu herrialde osoan. Auke-
ra hura aprobetxatu beharra zegoela eta,
gazte haiekin bertsolaritza lantzen jarraitu
behar zela ikusi zuen Nafarroako Bertso-
larien Lagunak Elkar-
teak. Bortzirietan talde
koxor bat zegoela eta, bertan paratu zen
abian lehenbiziko bertso eskola, eta ondo-
tik etorriko ziren bertze zenbait bertso
eskola Nafarroa osoan zehar.

Manolo Arozena eta Bittor Elizagoien
izan ziren bertso eskolaren bultzatzaileak,
eta irakasleak orain gutxi arte. Bortzirietan
egin zuten lehenbiziko deialdi hark erant-
zun ezin hobea izan zuen. 30en bat gazte
hasi ziren bertsoetan, dozena erdi bat ingu-
ru Lesakakoak eta gainerako guztiak Aran-
tzakoak. «Errazagoa zen bi autotan Lesaka-

koak hartu eta Arantzaraino joatea, eta
horregatik finkatu genuen bertso eskola
Arantzan», argitu du Manolo Arozena.
Hasieratik bi talde osatu ziren, bertsolarit-
za landuagoa zutenekin bat eta hasibe-
rriekin bertzea. Arantzako jendea bertso
eskola uzten joan ahala eta bertze herrietatik
jende gehiago etortzearekin, Arantzatik
Lesakara igaro zen bertso eskola, bigarren
ikasturtean.

Hasierako ikasle haien artean, gaur egun
aski ezagunak diren zenbait zeuden; hala
nola, Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez,
Iñigo Olaetxea eta Xabier Silveira. Lau
horiek, Amaia eta Aitor Telletxea anai-arre-
bekin batera, erreferentea izan ziren Nafar-
roako bertsolaritzan, eta bertso eskolaren
adierazgarriak handienak bihurtu ziren.

1992an plazara

Bortzirietako Bertso Eskolaren lehenbiziko
urrats garrantzitsua 1992an izan zen. Esti-
txu Arozena eta Xabier Silveira, 17 eta 15
urterekin, Nafarroako Bertsolari Txapelketan
atera ziren kantuan. Ez zailtasun guti
gaindituta, hala ere. Manolo Arozena gogo-
an du zein zaila izan zen gainerakoak
konbentzitzea: «Eztabaida gogorak izan ge-
nituen horretan. Bittor Elizagoienek eta nik
iritzi bera genuen horretan: txapelketa za-
harkitua zegoela eta Estitxuk eta Xabierrek
paper txukuna egiteko aukera zutela ikus-
ten genuen. Nonbait ezarria zegoen 18
urte behar zirela txapelketan parte
hartzeko, eta guk hori gainditu
nahi genuen. Azkenean gure
egoskorkeriak irabazi zuen,
eta urte hartako txapelketan
parte hartu ahal izan zuen
biek». Sunbillan gertatu
zen hori, martxoaren 29an,
eta ordurako bertso eskolan
zebiltzan guztien amets-
taketako bat erreality-
tate bihurtu zen.

Bertso eskolak zabalkunde
handiagoa izan zuen une hartatik
aitzinerara gizar-
tean, eta Bortzirietan
bereziki.

**1992an Estitxu Arozena eta Xabier Silveira, 17 eta 15 urterekin, Nafarroako Bertsolari Txapelketan atera ziren kantuan. Ez zailtasun guti gaindituta, hala ere. Bertso eskolak zabalkunde handiagoa izan zuen une hartatik aitzinera gizar-
tean, eta Bortzirietan bereziki.**

Urko Atxotegi Ipar Euskal Herriko gazteak
egina zuen urrats bera aitzineko urtean Nafar-
roako Txapelketan. Baina, Estitxu Arozena
eta Xabier Silveira plazaratzearekin bat,
bide berria zabaldu zitzaion Nafarroako
bertsolaritzari eta txapelketari. Urte hartako
txapelketaren harira, honakoa bildu zen:
«Lehen aldikoz, kanporaketa ekitaldi eta azken
saioan helduak eta gazteak, maisuak eta
ikasleak, gizezkoak eta emakumezko batek
parte hartu dute. Bide berri eta agian luze
baten lehen urrats honek esperantzari eta
gogoei leioak zabaldu dizkio». Ez zen
batere iragarpen txarra izan, goitik behe-
tik eraldatu baita Nafarroako Txapelketa—
eta bertsolaritza, oro har—ordudunik.
Geroago etorri ziren Silveira eta Arozena-
rekin bertsoetan hasitako Amaia eta Aitor
Telletxea, Estitxu Fernandez eta Iñigo
Olaetxea. Baina, itxuran ez ezik, bertzelako
kontu antzietan eragin zuen urrats hark
aldaketa: epaimahaia berrituz joan da,
gaijartzaile taldeak, bertsolari andana
plazaratu da... hori guztia, ez bairik gabe,
Bortzirietan bezala, bertze zenbait eskualde-
tan ere bertso eskolak zabaldu zirelako.

Baina Bortzirietako Bertso Eskolak
gazteak bertsoetara hezten eta zaletzen
jarraitu zuen. Bertso Eskola lau paretetik
haratago ateratzeko ahaleginean eta bertso
eskolako ikasleen konpromisoa bultzatze-
ko, 1993ko maiatzaren 15ean Beran egin
zen Euskal Herriko Bertsolari Gazteen
Eguna, Bortzirietako Bertso Eskolak anto-
latua. 1999aren hastapenean Bortzirietako
Bertsolari Txapelketa paratu zuten abian,
eta urtero bertso-paper lehiaketa bat ere
antolatzen da, bertzeak bertze.

Emaitzak, begi bistan

Bertsolariak ematen jarraitzen zuen Bertso
Eskolak, eta txapelketara etengabe jauzi
egin dute Bortzirietatik bertsolariak (zen-
bait txapelketatan parte-hartzaileen erdiak

Nafarroako 1992ko Bertsolari Txapelketa Sunbillan.
● MANU GOMEZ



Bortzirietako bertso eskolaren 1999ko txapelketa. ● JOXE LACALLE

Manolo Arozena

BERTSO ESKOLAKO SUSTATZAILE ETA IRAKASLEA

«Lagun talde bat izateak eman dio segida Bertso Eskolari»



Manolo Arozena, Bittor Elizagoienekin
batera, Bortzirietako Bertsolari Eskola
sortu zuen duela hamar urte, eta irakas-
lea izan da orain gutxi arte.

■ **Bertso Eskola emankorra izan da Bortzirietan. Non egon da sekretua?**
Deus ere ez zegoen tokitik sortutako
bertso eskola izan da. Bertsolariak eman
ditu, baina baita gaur egun Nafarroako
eta Euskal Herriko txapelketetan dabil-
tzen epaimahaikideak, eta inguruan ibili
den jendea gaiak paratzen... Izan ere,
Bertso Eskola hori da, ez bakarrik ber-
tsolariak egin behar direla, eta horretan
Bortzirietakoak suertea handia izan du.
Bertso eskola asko dira urtean lanean
ari eta bertsolaririk plazaratu ezin izan
dutenak, eta ez da derrigorrezkoa ber-
tsolariak plazaratzea. Baina hemen, hasi
eta, lehendik ere ikastolan lan bat egina
zegoenez, bertsolariak azaltzen joan
dira.

■ **Garai hartan sortutako bertze bertso eskolak desagertu diren arren, Bortzirietakoak iraun du. Zein da alde?**

Bertso eskola batean funtzionatzea oso
zaila da bakoitza punta batekoa baldin
bada. Hemen suertea izan dugu, hasie-
ran talde hura lagun talde bat zela, eta
bigarren labealdian ere, Bertso Eskolara
iritsi zirenean lagunak ez izan arren,
hemen lagun egin eta, lagun taldea osatu
dutela. Talde bat hasi, eta talde izaten
jarraitu dute gero ere. Bertso Eskolatik
kanpo ere elkarrekin ibili dira, eta horrek
gauzak asko erraztu ditu. Horrelako herri-
tikietan Bertso Eskola mantentzea Iru-
ñean baino errazagoa da, harremanak
gehiago lantzen direlako.

■ **Bertsolaritza ez dago modan, eta hori nabaritzen da bertso eskoletan. Zer etorkizun du, hala ere, bertso eskolak?**

Bertsolaritza eta bertso eskolak lotuak
joan dira. 90eko urteen hasieran ber-
tsolaritza puri-purian zegoen, eta bertso
eskolak bete-beteak. Orain, bertsolaritza
bere onera itzuli da, eta bertso eskoletan
ere jende gutiago dabil. Ateak itxi gero,
zailagoa da gero berriz irekitzea, eta ahal
den neurrian mantendu behar da. Erraza
da giroa hozten joatea, urte guztian zehar
bertsolariak ez duelako deus ematen.
Trikiti-
xa edo dantza ikasten duena une jakin
batean jendaurrean pieza bat jotzeko
edo dantzatzeko gai da, baina bertsola-
riak inprobisatu egin behar du. Hori
sufimendua da, eta bakarrik sufimen-
dua ematen badizu, ihes egiten duzu.

→ Jon Abril

Arakil-Hiriberriko lokia

Lehengo garaietako giroa faltan botatzen dutenak badira ere, gutxi dira jendaurrean huraxe zintzoki onartzen ausartzen direnak. Badira euskarari aihur eta politika sozialari herra itsua diotenak; alabaina, egun eramaten denaren arabera, gutxi dira lehenaldiarekin bat egiten dutenak ere.



Francisco Francoren heriotzaren mende laurdena bete den aste honetan, eta non edo non agertu den eske-laren bat kenduta, kazetetako gehigarri berezietan gutxi izan dira altxamendu faxista eta horren osteko diktadura ontzat eman dutenak. Bejondeigula beraz, jada ez da frankistatik geratzen gurean. Jakin badakigu, ordea, izan bazirela, euskaldunak ere bai; eta ez gutxi, gainera. Horrelakoak izan ziren, hain zuzen ere, Arakil-Hiriberriko bi seme; Etxeberria eta Medrano adinkideak, hain zuzen ere.

Mario Etxeberria Lopez de Zubiria 1917ko urtarrilaren 19an jaio zen. *Arriba España* egunkariko kazetaria izan zen sortu zen unetik beretik 1955era arte. Ondoren ere, eta kazetaritza largatzeke, *Hoja del Lunes*, *Diario de Navarra* eta *Norte Exprés* egunkarietan idatzi zuen, eta sona pixka bat hartu zuen igandeetan Conde Kalixto ezizenarekin ateratzen zituen kronika umoretsuei esker. Jubilatut ostean, Iruñean zendu zen 1986ko maiatzaren 31n. Egundazte anitzendako ezezaguna badateke ere, frankismo garaian Nafarroan egiten zen kazetaritza kanonikoa eta ofiziala kontrolatu eta aupatzen zutenekin batera bazegoen. Trantsizio garaian, orduko beste horren-

beste politikarik, kazetarik, kultur gizonak eta abarrek egin zuten antzera, ongixko jakin izan zuen jakin ere demokraziak eskatzen zuen egoera berrira egokitzen, eta, esan bezala 86an hil bazen ere, lau urte beranduago, hain da, 1990ean Nafarroako Aurrezki Kutxak atera zuen *Gran Enciclopedia de Navarra* entziklopedia (GEN) markisatu eta zuzenduan berean zerbait sarrera izan zituen.

Aipatu bigarren hiriberritarrengana hurbil gaitzen segituan. Domingo Medrano Balda 1917ko abenduaren 16an jaio zen. Kasualki Medranoren gaineko informazioa GEN-n dago eskuragarri, Etxeberriak berak egina. Lehenbiziko ikasketak Hiriberriko maisua zen Agustin Garcia Bordelekin egin ostean, Portugalgo Curia hirian josulagunek duten ikastetxean burutu zuen batxilergoa. 36ko gerratea hasi zenean bera izan zen *La Voz de Navarra* egunkari jeltzalearen egoitzan *Arriba España* sortu zutenetako bat. Bertan erredaktore eta

takigrafo moduan lan egin zuen, 1942an zuzenbidean lizentziatu arteraino. Orduz geroz, garrantzi handiagoko karguak izan zituen, harik eta *Delegación Nacional de Prensa del Movimiento* ordezkartzaren zuzendari izendatua izan arte; harrezkeroz Madrilen segituko zuen, postu berean, 1980ko apirilaren 15ean zendu zelarik.

Ez Etxeberriak ez Medranok ez zuten euskaraz ezertxo ere idatzi. Pentsa liteke, agian, bi idazle hauen belau-naldirako euskararenak bereak egin zuela, baina Medrano, esate baterako, bertsolari baten semea izan zen, Kalixto Medranorena; beraz, euskara etxean bertan izan zuen erre-alitatea bazeukan, errefusatu zuten erre-alitatea bestalde. Mario Etxeberriak Kalixto bertsolariaren berri eman zuen bere lagunari buruz GEN-erako ondu zuen sarre-ran: "*labrador y poeta vasco, de quien el padre Zabala encontró poesías y textos literarios en vascuence en Tolosa y San Sebastián*". Ezin hotzagorik. Alabaina, Etxeberriak sobera zekien *labrador y poeta vasco* horren berri, areago Iruñean biziz eta lan eginenez, *Diario de Navarra* hartan. Izan ere, 1969ko irailean *Príncipe de Viana* aldizkariak atera zuen euskarazko gehigarriari Kalixto Medranoren bertso batzuk argitaratu baitziren.



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Urrutiko zaporeak dastatzeko aukera eskaintzen du Iruñeak. • MIKEL SAIZ

Txuletaren diktadura

Bikotekidearekin postrea hartzeko ez duzu zertan aperitiboarekin konformatu. Aspalditik herri mugimenduetan jo eta fuego lanean ari bazara, saltsa berriak probatzeko aukera daukazu orain. Abenturazale amorratuaren horrek platerkada baten bitartez mundua zeharkatu dezakezu. Inguruko errealtate politikoa irentsi ezinean bazabiltza, urruneko zapore goxoak eskura dituzu.

Beraz, ahasbaiaren iraultza egiteko tenorea da. Iruñean bertan-gero eta aukera gehiago dago txuletaren diktadurari aurre egiteko. Hainbat jatetxetan bazkari eta afari mundialak ematen dituzte gure mugetatik at hona bizitzera etorritako lagunek. Anoz anaiak edo Oskorri baino, nahiago badituzu Huajoloteak, Ezkirotz kaleko jatetxe mexikarrera joan zaitezke. Bertan, Coronita bat edan ondoren, huacamolea jan dezakezu. Betiere, haragia nagusi, saltsa min eta guarnizioarekin nahasiak.

Oraindik ere zapore biziak dastatzen jarraitu nahi baduzu, Ramon y Cajal plazan dagoen jatetxe indiarra jo dezakezu, haragiak, jogurtak eta fruitu lehorrak osatzen duten Taj Mahal Grill platerkada on bat afaltzeko. Nolanahi ere, sukaldaria pakistandarra da, eta jatetxe turkiarra zabalduko du gure hiriburuan aurki.

Zure sabela gaixoari atse-denalditxo bat eman nahi ba-

diozu, bidezkoena Amairuko Gaztelua kalean dagoen Al-safir jatetxe arabiarra abiatzea da. Hantxe sukaldari marokorrek kuskusarekin eginiko zopa eta haragi eta barazki brotxetak jateko parada izanen duzu. Afalondoren, gainera, digestioa behar bezala egiteko, sabelaren dantza antzeten dute. Toki berean, aurretik eskatuz gero, Japoniako sukaldaritzaz gozatzeko aukera dago; arrain gordina jan daiteke, nahiz eta ez dagoen lurrean eseri beharrik txotxak eskutian hartuta.

Halaber, gastronomiari esker Olinpiar Jokoak berriz ere gogora ekartzeko modua badago Iruñean. Sarasate pasealekuko Dulcalk taberna australiarrean kangurua artoarekin ematen dute bazkaltzeko eta pintxoak arratsaldeetan.

Ezagunagoak ditugu txinatarrak paratutako jatetxeak. Hamabost dira guztira gure artean. Italiarrek, orotara, sei jatetxe dituzte Iruñean.

Urrutiko zaporeen bila joan gabe bestelako toki alternatibo zenbait badira gure hiriburuan. Hiru jatetxe begetariano baditugu aukeran. Bestetik, merke jateko uni-bertsitateetako jantokietan 600 pezetaren truke bazkal daiteke. Dilistekin egindako albondigak San Agustin kaleko gaztetxe Lapiku jantokian soilik aurkituko dituzu. Zurea da aukera. On egin.

Ziria

• Motxorrosolo •

Autokritika

Diktadorearen irudi lausotua, historiaren aferan erdiratzeak egin antzinamenduaren lekuko. Bestelako ikuspegia zabaltzeko ezpalak daudela aldarrikatzen dute. Alta, eta tresna balioarena ukatu gabe, oker gabiltza. Historiarena, talka egiteko baliatzen da, inoiz autokritikarako bidea gerta daiteke. Guztiz osasungarria den ariketa.

Ana Garcia Matias

AFRIKA ETXEKO LEHENDAKARIA

«Berrogeita hamar Afrika Etxe behar dira»

Erriberrin etorkinei ostatu eta heziketa emateko etxea zabaldu berri dute: Afrika Etxea. Ana Garcia da horren sortzailea eta arima. Ez du karitatea ematea gustuko. Gehiago eman behar dela uste du, eta horregatik eman du berak bere bizitza.



● MIKEL SAIZ

AFRIKA ETXEAN HOTZA EGITEN DU. 850 metro koa droko bi solairuko etxe handia berotzeko oparitu zizkionten bi berogailu besterik ez dituzte. Opari gehiagoren zain dira.

■ Zein da Afrika Etxearen historia?

Ceutako Calamocarro kanpamenduan hiru urtez boluntario ibili nintzen, eta ikusi nuen etorkinak harrera onik egiten ez zieten pertsonekin gertatzen zirela penintsulan. Handik ideia batekin itzuli nintzen: etxe bat behar zen etorkinei ostatu eta heziketa emateko. Hainbat lekutan bila ibili eta gero, azkenean, aita frantziskotarrek, aurtengo otsailan, Erriberriko etxe hau eskaini ziguten. Abuztuaren hasieran Damian Le-

kunberri, Bea Noya eta hirurok etxean sartu eta, pertsona askoren laguntzarekin, etxea zaharberritu genuen. Iragan larunbatean inauguratu genuen. Inauguratu gabe ere, gonbidatu anitz izan du etxe honek: ekuadortarrak, ginearrak, bulgariarrak, georgiarrak... Afrika Etxea errealitate bilakatu den ametsa da orain.

■ Afrika Etxea zure etxea da, zure bizitza.

Bai, nik fundatu nuen, baina atzetik jende asko dago. Nik nire bizitza utzi egin dut. Hogeita bost urtez egon nintzen Bilbon, hezkuntzan lanean. Baina ikusi nuen elkartasuna ez zela soberan duguna ematea. Ez dut karitatea soilik nahi; karitatea eta elkartasuna eman behar da. Etxean egon behar dutenei

solidario izateko eskatzen diet, eta beste kultura, etnia eta erlijioei begirunea izateko.

■ Zenbat etorkin egon daitezke hemen?

Erriberriko Udalarekin hitzartu dudanez, hemen, gehienez, hogeit lagun egon daitezke. Proiektua aitzindaria da, eta oso ongi atera behar du, etorkizun itxaropentsua izan dezan. Jende asko badago, ezin dituzu ongi hartu eta ezin dituzu klaseak modu egokian eman.

■ Zein motatako etorkinak hartzen dituzue?

Mota guzietako etorkinentzat da etxea, edozein kolore, arraza, herri edo erlijiotakorentzat, berdin asilo politiko bila dabilentzat zein dirua irabaztera etorri direnentzat. Hori bai, paperak izan behar dituzte. Hala ere, egunean batean paperik gabeko etorkin batek gure atean jotzen badu, guk irekiko diogu atea eta hiruzpalau egunez izanen dugu hemen.

■ Zer eskaintzen diezue etorkinei?

Etorkinei ostatu ematen dieten etxe asko daude, baina hau da ostatu eta heziketa ematen dien bakarra. Etorkinek lan egin nahi dute, dirua irabazi, baina, horretarako, heziketa behar dute. Hori ematen saiatzen gara. Goizean, lanbide heziketa klaseak hartzen dituzte eta, arratsal-

«Diru laguntza publikorik oraindik ez dugu eskatu. Lehenik eta behin, gure baliabideekin soilik abiatu behar dugu proiektua. Ezin dugu guziena den dirua eskatu jakin gabe proiektuak funtzionatuko ote duen. Hori behin lortuz gero, eska daitezke laguntza horiek»

dean, gaztelania klaseak. Alfabetizazio klaseak dira, baina baita gizarte honetan bizitzeko jakin beharrekoak ikasteko ere.

■ Etorkinek ordaintzen dute hemen egoteagatik?

Ez, hemen ez da deus ordaintzen. Guk ere ez dugu deus kobratzen. Hogeita bi egun eman ditugu barazkirik jan gabe, eta ia hiru hilabete arrainik jan gabe.

■ Eta nondik ateratzen duzue bizitzeko?

Bazkideak ditugu eta zenbait enpresak laguntzaren bat eman digute.

■ Eta diru laguntza publikoak?

Oraingoz ez dugu horrelako laguntzarik jaso. Diru publiko eskatzeko, lehenik eta behin, proiektua gure baliabideekin soilik abiatu behar dugu. Ezin dugu guziena den dirua eskatu jakin gabe ea proiektuak funtzionatuko ote duen. Hori behin lortuz gero, eska daitezke laguntza horiek. Bestalde, Afrika Etxea opariekin egin da, eta opariak egin dizkiguten guzietan eskerak eman behar zaizkie. Hemen gaudenetik jendeak ematen digunarekin jaten dugu. Gurutze Gorriak eta Iruñeko Janari Bankuak ematen digunarekin. Eta, adibidez, beheko solairu guziaz Tafallako gizon batek pintura oparitu digulako pintatu dugu. Dagoeneko, mirarietan sinisten hasia naiz.

■ Hortaz, etxe honek etorkizuna duela uste duzu.

Jakina. Nik nire bizitza utzi egin dut amets bati ekiteko. Eta ez nuke hori egiten, ikusiko ez banu proiektu hau polita ez ezik beharrezkoa ere badela. Orain etxe hau dugu, baina horrelako berrogeita hamar behar dira. Etorkinek eskubidea dute harrera, heziketa eta osasuna izateko, klaseak jasotzeko, bizitzeko leku duina izateko, lana izateko. Guk ditugun eskubide berak dituzte.

→ Asier Azpilikueta

soslaia

Ana Garcia Matias Bilbon jaio zen, baina orain ez da Bilbokoa. Hogeita bost urte eman zituen han, hezkuntzan lanean, baina bertan behera utzi zuen dena, bere bizitza etorkinei, edo horien arazoei, eskaintzeko.

Ana Garcia kooperantea izan da, Malin (1989) eta Bolivian (1991), eta Ceutako Calamocarro kanpamenduan hiru urtez egon zen, koordinazio lanetan. 'Orain niri ez didazu entzuten Bilbokoa naizela erraten', dio. 'Orain Afrika Etxekoa naiz'.

Afrika Etxeak egun 105 boluntario ditu eta 60 bat bazkide. Baina gehiago behar dituzte, noski. Lagundu nahi izanez gero, deitu 948-740318 telefonora edo sartu zure diru ekarpena Nafarroako Kutxaren 2054 0034 43 912547082.1 kontu korrontean.



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

25 urte; urte franko

Badakizu zein egun den? Galdetu zidaten. Gaur? Bai, astelehena. Bai, baina zein egun? Ba... azaroak 20... eta? Azaroak 20 ez, azaroaren 20a, «veinte enea». Beinte Enea? Eta zer da hori, Donostiako jauregixoren bat? Ezetz ba, gizona! 20-N! Franco hil zeneko eguna!

Horixe, Franco duela 25 hil zela, eta jadanik 25 urte pasatu direla ordutik. Ez dakit gehiegi diren edo ez. Erdibidean gelditzea dugu hoberen eta, euskaldunok egiten ditugun hitz joko zoragarriak eredu, urte franko direla esanen dugu. Egund nafar gizartean Franco gogoan dugu gehienok. Batzuk, Franco gogoan izateaz gain, ferrolekoaren ama, aita eta gainontzeko senitarteekin akordatzen gara. Beste batzuek, ordea, biziki gogoratzen dute, Nafarroa San Fernandoren ereinotz hostoet «saritu» baitzuen. Nostalgiko horiek (nostalgia gaixotasun mota bat izanen da), Cordovillako inpartzialean islatu zuten eskelaren arabera, hiru dira. «Hiru nafar» zen bertan agertzen zen sinadura. Hiru? Gehiegi iruditzen zaizkit.

Francoren heriotza baino gehiago, Juan Carlos erregearen trebezia gorai-patzen dute behin eta berriz Estatuko telebista orotan. Lan zaila behar du izan, dena den. Juan Carlos erregearen lana gorai-patzea, diot.

Trantsizioak gauzak aldatu zituen. Baina askotxok, itxuran ere, berdin-berdin izaten jarraitu zuten. Iruñeko kale izenak aldatu zituzten arren, Erriberaldeko hainbat herritan ukituezinak dira. Era berean, bestelako ikur franko oraindik ere ez dira aldatu. Ikur eta armarrak frankistek hortxe jarraitzen dute. Eta horiek baino iraingarriagoak direnak: diskurtsoak, makro-urtegien aldeko apustuak, eus aurrizkiarekin hasten diren hitzen aurkako fobiak...

Nafarroan, duela 25, Pensamiento Navarro zegoen. Egund, politikari askoren artean bederen, «Pensamiento Unikoa» dago. Eta ez aparta delako, baizik eta bakarra delako.

Trantsizioa, trantsizioa baino gehiago, Nafarroan transhumantzia izan da. Politikari batzuk, ardien antzera, kokagune batetik bestera aldatu besterik ez dira egin.

gure aukerak

MUSIKA

- **Zizur Nagusia:** Etsaiak. Txapel-punk, Potrotaino eta El Trono de Judas taldeen kontzertua izanen da gaur, 21:00etatik aurrera, estalpeko frontoian.
- **Elizondo:** Gaur, 22:30ean, Imprescindibles taldea Casinon ostatuan izanen da.
- **Iruñea:** Bol taldeak bere azken diskoa aurkeztuko du gaur, 23:00etan, Artaia aretoan.
- **Iruñea:** Grey Souls taldeak Cotton Club tabernan joko du gaur, gaueko hamabietatik aurrera.
- **Tafalla:** Nafarroako Euskal Kantu Txapelketaren lehen kanporaketa Tafallan egingen dute bihar, 17:00etan, kultur etxean.

ANTZERKIA

- **Etxarri-Aranatz:** Hika konpainiak Arraultza delikatuak antzezlan taularatu du gaur, 22:00etan, kultur etxean.
- **Iruñea:** Sambhu antzerki taldeak Puffen mundua haurrentzako lana eskainiko du bihar, 12:00etan, Gaiarre antzokian.
- **Berriozar:** Larratz dantza taldeak Hamaika dantzetako lurra ikuskizuna eskainiko du igandean, 19:00etan, Mendialdea eskoletan.
- **Iruñea:** Ostegunean, Fabrica de Teatro taldeak Ander Lipusen Zortzi Olivetti poetikoak antzeztuko du Nafarroako Antzerki Eskolan, 20:30ean.

PAILAZOAK

- **Aribe:** Bihar, larunbatarekin, Kutxo eta Jai pailazoak Aezkoako Etxean izanen dira, 18:00etan.
- **Gares:** Asteartean, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek

Parrandan lan berria aurkeztuko dute eskola publikoan, 11:30ean.

HITZALDIAK

- **Erro:** Bihar, Mikel Belasko filologoak Erro eta inguruko herrietako izenak: mendiak, bideak hitzaldia emanen du Erroko Etxea elkartearen, 19:00etan.
- **Iruñea:** Asteartean, Miren Agur Meabe lekeitiarrak Azalaren kodea bere liburua aurkeztu eta Gutziak proiektuaren nondik norakoak azalduko ditu NUPen.

- **Gares:** Asteazkenean, Jose Maria Satrustegik Euskal Herriko sorginen mundua izanen du mintzagai erabilera anitzeko aretoan, 20:00etan.

KIROLAK

- **Zizur Nagusia:** Bihar, 13:00etan, paxaka pilota joko motaren erakustaldia egingen du Laxoa elkarteak frontoi handian.
- **Artaxona:** Igandean, laien lasterketa egingen dute herrian, 12:00etan. Laguntzeko, taloak eta txalaparta izanen da.

ERAKUSKETAK

- **Burlata:** Juanan Viedma margolariaren erakusketa Joaquín Azkarateko kultur aretoan ikus daiteke gaur eta bihar 19:00etatik 21:00etara eta igandean 12:00etatik 14:00etara.
- **Gares:** Abenduaren 3 arte, erabilera anitzeko aretoan, Gure arbasoen jakituria erakusketa etnografikoa ikusten ahal da astegunetan 19:00etatik 20:30era eta asteburuan 12:00etatik 14:00etara.

• JOXE LACALLE



Deabruak paretetan

Iruñeko paretetan egiten dituzten pintada 'politikoa' bi asteren buruan desagertarazten dituzte. Udalak adreilu garbia nahi du, edo goelet zikina, edo pintura eskualdi lodia; baina inondik inora ez Iruñearen errealtatea desitxuralda dezakeen pintada 'politikoa'. Hormak ere mutu nahi dituzte. Eta hara non grafitiaren idazleek Udalarari xede horretan laguntzen dioten. Izan ere, FCCkoek ez dituzte mila koloretako artelan hauek ezabatzeko (irudikoa Donibanen dago) eta, horrela, pintada 'politikoa' margotzaileek geroz eta leku gutiago dute adierazpen askatasuna eskubidea praktikatzeko. Baina Udaleko santujaleei gustatzen ote zaizkie Beltzeburen jarraitzaileen marrazkiak? Akaso Udalak PSN baztertu eta Satanasekin sinatuko zuen hitzarmena.